



Esp. zk. SUBV\_EVAL\_INDIV/2026/2

**Taxi-bonuen deialdia. 2026. urtea**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen 2005eko azaroaren 3an –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, ez zelako erreklamaziorik aurkeztu jendaurrean ikusgai egon zen epean–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO n argitaratua, otsailaren 17koan](#)).

**A. ENTITATE DEITZAILEA:**

<b>1. Administrazio deitzailea:</b>	IRUÑEKO UDALA
<b>2. Organo emalea:</b>	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkarria
<b>3. Alor kudeatzailea:</b>	Gizarte Ekintzako Alorra
<b>4. Instrukzio-organoa:</b>	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

**B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:**

**1. Deialdiaren xedea:**

**Deialdi honen xedea da banakako laguntzak arautzea, Iruñeko taxi-bonuaren bidez ematekoak, desgaitasuna dela-eta hiri-garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak dituztenei garraio egokitu alternatiboa eskaintzeko (taxia). Deialdi hau garraio kolektibo publikorako ibilgailuen irisgarritasunaren garapenak baldintzatuko du beti.**

**2. Deialdiaren xedea:**

Laguntza horien helburua da mugitzeko zailtasunak dituztenei hirian mugitzen laguntzea, bizimodu independentea egin ahal izan dezaten eta, ondorioz, gainerako herritarren eskubide berberak izan ditzaten, baldintza berberetan.

**3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:**

Dirulaguntza hau honela gauzatuko da: dirua emanen da, txartel elektronikoko baten bidez, onuradunek joan-etorriak taxi zerbitzu publikoaren bidez egiteko erabil dezaten 2026an, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, honako baldintza hauekin bat:

- Dirulaguntza kontzeptupean ematen diren kopuruek hilabeteko iraupena izanen dute, 2026. urtean dagokion hilabeteetan, uztailean eta abuztuan salbu: udan bi hilabeteko iraupena izan dezake antolakuntza-zioak direla eta.

- Taxi-bonuak norberarenak eta besterenezinak izanen dira, eta entitate laguntzaileak txartel elektronikoko gisa banatuko ditu deialdiaren onuradunen artean.

Taxia eskatzean, onuradunak aldeztu aurretik jakinarazi beharko du diru-txartela erabiliko duela.

- Taxilariak hala eskatzen badiu, onuradunak identifikazioa aurkeztu beharko du: NANA edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.

- Taxi-bonua Iruñerriko taxi-zerbitzuko edozein taxi egokitu edo irisgarri motatan erabiltzen ahalko da, betiere Iruñerriko Mankomunitatearen eskumenaren barnekoa bada. Udalerriaren barneko joan-etorrietarako eta Iruñerriko garraio publikoaren hiriarteko eremukoetarako erabiltzen ahalko da.



- Onuradunaren egoera aldatzen bada, jakinarazi egin beharko ditu aldaketa horiek, baldin eta programan sartzeko eskubideari eragiten badiote.
- Hilabete bakoitzari dagozkion taxi-bonuaren zenbatekoak baliozkoak izanen dira dagokion hilabete naturalaren azken egunera arte, betiere 2026ko abenduaren 31ra bitarte.
- Desgaitasunak aitortzeko zentroak emandako ebazpenean adierazi egin beharko da eskatzaileak zer zailtasun duen garraio kolektiboa erabiltzeko.

**4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:**

BAI  EZ

**C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:**

**1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa:** 200.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, 2026an aurrekontu-kontsignazioa agortzen bada eta Gizarte Ekintzako Alorrean urte horretarako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, zenbateko horiek deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, beste deialdi bat egin beharrik gabe. Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta dirulaguntzak eskatzeko epean egin duten eskatzaileak, baldin eta kreditua agortzean laguntzarik jaso gabe gelditu badira.

Halaber, laguntzaren onuradunek taxi-bonuaren txartelaren bidez hura jasotzeko eskubidea izanen dute soilik deialdi honetara zuzendutako gehieneko zenbateko osoa agortu arte.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

**2. Aurrekontuko partida:** 70/23181/480000

**3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak:** Onuradun bakoitzari emanen zaion gehieneko zenbatekoa hilabeterako ezarriko da, eta garraio kolektiboetara sartzeko zailtasuna neurtzeko baremoan jasotako kalifikazioaren arabera zehaztuko da. Zenbateko hauek ezarri dira:

- 103 €, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. ERANSKINEAN ezarritako "Garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak neurtzeko baremoko" A, B eta C apartatuetarako, edo urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuko "Mugikortasun Jardueretarako Mugen Baremoan (MJMB)" % 50etik % 100era bitarteko ehunekoa dutenendako (biak barne).

- 62 € hiler, gutxienez 7 puntu dituztenendako 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. ERANSKINEAN ezarritako "Garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak neurtzeko baremoko" D, E, F, G eta H apartatuetan, edo urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuko "Mugikortasun Jardueretarako Mugen Baremoan (MJMB)" % 25etik % 49ra bitarteko ehunekoa dutenendako (biak barne).

Onuraduna egoitza-zentro batean bizi bada, zenbatekoek ezin izanen dute 86 € eta 52 € baino gehiago jo, hurrenez hurren.

% 25eko gehigarria emanen da (hilean 129 € edo 78 € bitarte, hurrenez hurren) egunero taxia erabiltzeko beharra egiaztatzen bada lantoki batera edo derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntza arautuko ikastetxe batera joateko (Batxilergoa, LH edo Unibertsitatea), baldin eta zentroak ez badu erabiltzaile mota horiendako garraio egokitua eskaintzen.

Hilean gehienez jaso daitekeen zenbatekoa % 10 murriztuko da, eta 93 € eta 56 € izanen da hurrenez hurren, baldin eta onuradunak desgaitasuna duten pertsonendako aparkatze-txartelaren titularrak badira.

**4. Urte anitzeko deialdia:**  BAI  EZ



Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

**5. Urtekoak:**

Urteko arrunta:	200.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa ( )	€
1. urtekoa (2026)	200.000 €	3. urtekoa ( )	€		

**D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

**1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:**

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezin debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berriazko betekizunak:  BAI  EZ

1.- Iruñean erroldatua izatea 2025ko urtarrilaren 1etik, eta bertako udal-erroldan izena emanda egotea laguntza jasotzen den bitartean.

2.- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izatea eta horren ondorioz zailtasunak izatea garraio kolektiboetara sartzeko, eta hori egiaztatua izatea Desgaitasunaren Ziurtagiri Ofizialean –edo antzeko desgaitasun-ziurtagirian, beste autonomia-erkidego bateko organo eskudunak emana–, zeina Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak (PANA) ematen baitu desgaitasuna aitortu, deklaratu eta neurtzeko prozedura zehazten duen 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. Eranskineko "Garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak neurtzeko baremoak" ezarritakoarekin bat: A, B eta C apartatuetan ezartzen dena betetzea; edo gutxienez 7 puntu eskuratzea D, E, F, G eta H apartatuetan; edo gutxienez % 25eko puntuazioa eskuratzea Mugikortasun Jardueretarako Mugei (mugikortasun murriztua) dagokienez, desgaitasuna aitortzeko, deklaratzeko eta neurtzeko prozedura ezartzen duen 888/2022 Errege Dekretuko "Mugikortasun Jarduerak egiteko Muga Baremoak (MJMB)" ezartzen duenarekin bat.

3.- Familia-unitatearen urteko errentak ez gainditzea urteko gehieneko diru-sarrerak hauek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken ekitaldi aitortuan, betiere zer kenkaritarako eskubidea eduki eta horien zenbatekoa deskontatu ondoren, deialdi honetan ezarritakoarekin bat. Taula honetan zehazten dira urteko gehieneko diru-sarrerak:

Kide kopurua	Diru-sarreraren muga
1 3,00 X OAEAP	25.200 €
2 4,00 X OAEAP	33.600 €
3 4,500 X OAEAP	37.800 €
4 5,00 X OAEAP	42.000 €
5 5,5 X OAEAP	46.200 €

2025eko OAEAP (Ondore Askotarako Errenta Adierazle Publikoa): 8.400 € urtean

4.- Familia-unitateak zenbateko hau ez gainditzea ondarean:

- Kide bakarrek bada, familia-unitateak ezin du 100.000 euro edo gehiagoko ondarea eduki. Ondarea zenbatzean, ohiko etxebizitza ez da kontuan hartuko, gehienez ere 300.000 eurora arte.

- Bi kide edo gehiagokoa bada, familia-unitateak ezin du 130.000 euro edo gehiagoko ondarea eduki. Ondarea zenbatzean, ohiko etxebizitza ez da kontuan hartuko, gehienez ere 300.000 eurora arte.



Halaber, dirulaguntza ukatu egingen da, edo, hala badagokio, bertan behera utziko da, aurrez prozedura egokia eginda, baldin eta atzematen bada laguntzaren eskatzaile edo onuradunaren edo familia-unitateko kideren baten pobretze faltsua izan dela.

5.- Familia-unitateko kideek egunean izatea Iruñeko Udalarekin dituzten tributu-betebeharrak. Gizarte Ekintzako teknikariek ofizios egiaztatuko dute eskatzaileek ez dutela inolako zorrik Udalarekin (ez ordaintzea zergak, trafikoko isunak, EJZ eta abar)

## 2.- GAITASUN EKONOMIKOA EGIAZTATZEA

Deialdi honen ondorioetarako, pertsonaren edo familia-unitatearen gaitasun ekonomikoa zehazteko, diru-sarrerak eta ondare konputagarria –kapital higigarria eta higiezina– hartuko dira oinarritzat, edozein herrialdetakoak edo jatorritakoak direla ere, bat etorrita jarraian definitzen diren kontzeptuekin:

a) Pertsonaren edo familia-unitatearen diru-sarrera konputagarriak. Kontzeptu hauetako edozeinen bidez lortutakoak:

- Besteren konturako lanaren errendimenduak.
- Aitortutako prestazioak eta pentsioak, funts publiko edo pribatuen kargura finantzatutako gizarte-aurreikuspeneko araubideetakoak.
- Enpresa-jarduerengatiko eta jarduera profesionalengatiko errendimenduak.
- Kapital higiezinaren errendimendu garbiak.

b) Hauek hartzen dira kapital higiarritzat: kontu korronteko gordailuak edo eperakoak, akzioak, inbertsio- eta pentsio-funtsak, balore higigarriak, bizi-aseguruak erreskateren bat dagoenerako, eta aldi baterako errentak eta biziartekoak. Horiek guztiak beren balio nominalaren arabera balioetsiko dira.

c) Kapital higiezina landa- edo hiri-ondasun higiezinak osatzen dute. Ondasun horiek katastroko balioaren arabera balioetsiko dira. Interesduna ez denean ondasun guztiaren jabe, haren katastroko balioaren zati proportzionala hartuko da kontuan. Ondarea zenbatzean, ohiko etxebizitza ez da kontuan hartuko, hirurehun mila euroko katastroko-baliora arte.

## 3.- URTEKO ERRENTA

Urteko errenta zehazteko, honako kontzeptu hauek joko dira oinarri:

a) Familia-unitatea: Prezio publikoa kalkulatzeko kontuan hartuko den familia-unitatea da PFEZari buruz Nafarroan indarrean diren arauetan definitutako hura.

Familia-unitatetzat hartzen dira:

- Legez bananduta ez dauden ezkontideek, eta halakorik badaude, seme-alaba adingabeek –salbu gurasoek baimenduta independente bizi direnek– eta judizialki ezgaiturik dauden eta guraso-ahal luzatuak edo birgaituak lotzen dituen adin nagusiko seme-alabek osatutakoa.

- Berariazko legediaren arabera osatutako bikote egonkorrek, eta halakorik badaude, seme-alaba adingabeek –salbu gurasoek baimenduta independente bizi direnek– eta judizialki ezgaiturik dauden eta guraso-ahal luzatuak edo birgaituak lotzen dituen adin nagusiko seme-alabek osatutakoa.

- Legezko banaketaren kasuetan, edo ezkontza-loturarik, bikote egonkorrik edo bizikidetzako bikoterik ez



dagoen kasuetan, amak edo aitak eta bizikide dituen seme-alabek osatutakoa –baldin eta aurreko apartatuetan adierazitako betekizunak betetzen badituzte–.

- Inor ezin izanen da izan aldi berean bi familia-unitatetako kide.

-Familia-unitateko kideak zehazteko, urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoera hartuko da kontuan, salbu eta urte horretan familia-unitateko kideren bat hil bada. Halakoetan, familia-unitateko gainerako kideek baterako aitorpena egiteko aukera izanen dute, hildakoaren errentak barne hartuta.

Ezin izanen da aukera hori eskatu ezkontideetako bat hil bada eta bizirik dirauen ezkontidea urtea amaitu aurretik ezkondu bada.

b) Errenta: PFEZaren aitorpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitorpena edo likidazioa hartuko da, hots, eskaera egitean aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona. Batuko dira haren zerga-oinarriaren zati orokorra (PFEZaren 507 gelaxka) eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia (524 gelaxka), eta baturari gehituko zaio salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa (529 gelaxka). Bat etorrita Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua) 7. artikuluan, j letran, adierazitakoarekin, 529 gelaxkan bildutako diru-sarreraren artean ez dira aintzat hartuko hirurogeita bost urte edo gehiago dituztenei, desgaitasunen bat dutenei edo babesgabe dauden adin txikikoei harrera egiteko edo haiek egoitzetan edo eguneko zentroetan egiten dituzten egonaldiak ordaintzeko erakunde publikoek emandako diru-sarrerak. Diru-sarrera lotuak direnez, honako hauek ere ez dira aintzat hartuko: batetik, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak menpeko pertsonen emandako prestazio ekonomikoak, helburu dituztenak familia inguruneko zaintzak, edota zaintzaile profesional bat edo zerbitzu-enpresa bat kontratatzea; bestetik, menpekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonendako laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoa, eta, azkenik, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, bide ematen duena eguneko zentrorra eta egoitza-arretarako zerbitzura sartzeko.

Baldin erabiltzailea PFEZaren aitorpena egitera derrigorturik ez badago, Foru Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, zeinetan adierazten baita ezen eskatzailea edo familia-unitatea ez daudela aitorpen hori egitera derrigortuta. Horrez gain, azken ekitaldiko datu fiskalen orria aurkeztu beharko dute, Ogasunak emana. Horrelakoetan, kontuan hartuko dira familia-unitateko kideen diru-sarrera gordinak eta eguneratuak, baldin horien agiriak aurkeztu badira.

c) Gastu kengarriak: Errentari dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak, jarraian adierazitako kontzeptu hauengatik:

1. Ohiko etxebizitzako gastuak (gehienez ere hilean 400 € edo urtean 4.800 €, honako kontzeptu hauek batuta):

- Ohiko etxebizitzaren alokairua, edo antzekoak (frogagiriak aurkeztu behar dira).
- Ohiko etxebizitza erostegatiko maileguaren amortizazioa (frogagiriak aurkeztu behar dira).

2. Langileak kontratatzeako gastuak gizarte- eta osasun-egoera dela medio halakorik behar duten pertsonen beren etxeetan jarraitu dezaten arreta pertsonala jasotzen, betiere hori guztia frogatzeko modukoa izanda, dela mendekotasuna aitortzeko ebazpen baten bidez, dela Udaleko gizarte-zerbitzuek egindako txosten baten bidez (gehienez ere hilean 700 € edo urtean 8.400 €). Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak prestazio ekonomiko batzuk ematen ditu mendekotasuna duten pertsonentzat, zaintzaile profesionala edo zerbitzu-enpresa kontrata dezaten (zainketa profesionalerako laguntza), baita menpekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzat, laguntzaile pertsonala kontrata dezaten (laguntza pertsonalerako dirulaguntza). Halako prestaziorik jasoz gero, kontratazioaren guztizko zenbatekoari zainketa profesionalerako laguntzaren kantitatea kenduko zaio, eta kendura horri deskontua



aplikatuko zaio, hilean 700 eurokoa, gehienez ere. Zainketa profesionalerako edo laguntza pertsonalerako dirulaguntza jaso ez eta aipatutako kenkaria izan nahi dutenek kontratatutako pertsonaren kontratua, hura Gizarte Segurantzaren altan ematearen agiria eta azken 3 nominak (horien ordainketa-frogagirikin) aurkeztu beharko dituzte.

3. Eguneko egoitzan egotearen (gehienez ere 400 € hilean edo 4.800 € urtean) edo erresidentzian sartzearen gastuak (gehienez ere 1.000 € hilean edo 12.000 € urtean). Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko bat ematen du eguneko zentrorra sartzeko. Halako prestaziorik jasoz gero, eguneko zentrorra sartzeko guztizko kostuari kendu egingen zaio zerbitzuari lotutako prestazioaren zenbatekoa, eta kendura horri deskontua aplikatuko zaio, hilean 400 eurokoa, gehienez ere. Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko bat ematen du egoitza-arretaren zerbitzurako. Halako prestaziorik jasoz gero, egoitza-arretaren zerbitzuko guztizko kostuari kendu egingen zaio zerbitzuari lotutako prestazioaren zenbatekoa, eta kendura horri deskontua aplikatuko zaio, hilean 1.000 eurokoa, gehienez ere.

4. Pentsio konpentsatzaileak: epai judizialean jasotakoak eta ordaindutakoak. Aplikatzen ahalko da, bakar-bakarrik, dokumentu bidez frogatzen den eta errentaren aitortpenik egiten ez den kasuetan.

#### KENDU AHAL IZANEN DEN GEHIENEOA:

Gehienekoak kontzeptuen arabera dira:

- Ohiko etxebizitzaren alokairua edo ohiko etxebizitzaren hipoteka-mailegua: Gehienez 400 € hilean (4.800 € urtean).
- Kontratutako langileak: Gehienez 700 € hilean (8.400 € urtean). Eskatzaileak laguntza ekonomikoren bat jasotzen bada mendekotasunen bat duen norbait zainduko duen zainketa profesional bat kontratatuzko, laguntza horren zenbatekoa kenduko zaio kontratazioaren kostu osoari.
- Eguneko Zentroa: Gehienez 400 € hilean (4.800 € urtean).
- Egoitza: Gehienez 1.000 € hilean (12.000 € urtean).

Eskatzailea edo familia-unitateko kideren bat ohiko etxebizitzarako alokairu-kontratu edo hipoteka baten titularra bada, hileko kostuaren % 70 deskontatuko da, gehienez ere 400 euro hilean, betiere ordainketa-frogagiria aurkezten bada.

d) Urteko errenta garbia: familia-unitateak ez gainditzea urteko gehieneko diru-sarrerara hauek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken ekitaldi aitortuan, betiere deialdi honetako D.1.3 apartatuan ezarritako tarteekin bat zer kenkaritarako eskubidea eduki eta horien zenbatekoa deskontatu ondoren.

#### SALBUESPENEZKO EGOERA BEREZIAK

- Familia-harrera: familia-unitate batek desgaitasuna duen adingabe bat harreraren hartua badu (abandonu edo babesgabatasun dekretuak zehaztuta) eta adingabe horrek taxi-bonuaren banakako laguntza jasotzeko baldintzak betetzen baditu, egoera berezizat hartuko da familiak diru-sarreraren maila (errenta) gainditzea, baldin eta onuraduna desgaitasuna duen adingabea bada.
- Desgaitasuna duten bi lagun edo gehiago familia-unitate berean: familia-unitate bateko bi kidek edo gehiagok taxi-bonuaren banakako laguntza jasotzeko baldintzak betetzen badituzte, egoera berezizat hartuko da PFEZaren aitortpenaren gehieneko diru-sarrerak gainditzea, betiere diru-sarrera horien ehuneko ez bada oinarrietan ezarritako atalasearen % 40 baino handiagoa. Halakoetan, familia-unitateko kideek banan-banan eskatu beharko dute taxi-bonua.
- Gaixotasun larriren bat izatea eta frogatu ahal izatea gaixotasun horrek asko murrizten duela gaixoaren bizi itxaropena. Eskatzaileak horrelako gaixotasunen bat badu eta oraindik Desgaitasun Ziurtagiria tramitatzen ari badira, familia-medikuak emandako osasun-txosten bat erabiltzen ahalko da horren ordez, gehienez ere 6 hilabetez, deialdi honetako dirulaguntza lortzeko. Epe hori amaitutakoan, onuradunak eguneratu egin beharko du bere egoera, eta horretarako, laguntza berri edo hala badagokio bertan



behera uzteko behar diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Zer egoeratan dagoen egiaztatzen ez badu, baja emanen zaio zuzenean.

Dirulaguntzaren izaera berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako baldintzak betetzen dituztela:

BAI     EZ

**2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla:** Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

**E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:**

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI     EZ

**Deialdi honetan araututako ordainketa elektronikoko sistema derrigorrezkoa da laguntzen onuradunentzat.**

- **Taxi-bonuaren txartelaren erabilera norberarena eta besterenezina da.**
- **Taxia eskatzean, onuradunak aldeztu aurretik jakinarazi beharko du diru-txartela erabiliko duela.**
- **Taxilariak hala eskatzen badiu, onuradunak identifikazioa aurkeztu beharko du derrigor: NANA edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.**
- **Dirulaguntza hau eskuratzeko modua eman dion egoera aldatu egin bada, onuradunak jakinarazi egin beharko ditu aldaketa horiek, bereziki bizi-itzaropena nabarmen murrizten dion gaixotasun larriren bat duelako eman bazaio dirulaguntza, kontuan hartu gabe mugikortasunean desgaitasun larriak dituela ziurtatzen duten Desgaitasun Ziurtagiria egin den edo ez.**
- **Erabiltzaileak edozein irregulartasun atzematen badu garraio-zerbitzuan, Iruñeko Udalari jakinarazi beharko dio.**

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezala publikatu eta hedatu behar dute Udalak publikoki finantzatu dituela dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafiko batzuetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".



- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hori betetzen ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat:  BAI  EZ  
Xede-epea:

#### **F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:**

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI  EZ

#### **G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:**

##### **1. Eskabideak non aurkeztu:**

Dirulaguntzetarako eskabideak honako toki hauetan aurkezten ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako beste edozeinetan.

**2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da, eta 2026ko urriaren 31n amaituko.**

##### **Berritzeak:**

**Dirulaguntza berritzeari ekiteko, taxi-bonuaren dirulaguntzaren onuradunek abenduan aurkeztu beharko dizkiote Iruñeko Udalaren taxi-bonuak kudeatzeko entitate laguntzaileari ekonomia- eta ondare-egoera egiaztatzen duten agiriak (data eguneratua dutelarik), betiere deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte.**

**- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpena eta urte bereko datu fiskalen orria. Baldin eta eskatzailea errenta aitortpena egitera derrigorturik ez badago, hori egiaztatze aldera Foru Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horrez gain, azken ekitaldiko datu fiskalen orria aurkeztu beharko du.**

**- PFEZaren datu fiskalen dokumentuan ageri diren banku-kontuetako egungo saldoen ziurtagiria, bai eta azken errenta aitortpena egin ondoren sortu diren banku-kontuetako saldoena ere.**

##### **Hala badagokio:**

- **Desgaitasuna edo mendekotasuna duena artatzeko norbait kontratatu izanaren frogagiria.**
- **Hipoteka edo alokairua ordaintzen dela egiaztatzen duen frogagiria.**
- **Derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketa arautuak ematen dituen ikastetxe batera joaten dela egiaztatzen duen frogagiria.**
- **Egoitza edo eguneko zentroaren ziurtagiria: interesdunak hileroko ordaindutakoa adierazi**



**behar du, honela banakatuta: egoitzako edo eguneko zentroko plazaren hileko kostua, Zerbitzuari Lotutako Prestazioagatik jasotako zenbatekoa eta egoiliarak eginiko ordainketa garbia.**

**- Deialdiaren oinarrietako D.1 puntuan jasotako salbuespenezko egoerak justifikatzeko agiriak.**

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

### **3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:**

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliadun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean hutsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde zuzenetik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

### **4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:**

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzen duena eskatzaileak betetzen dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ez diola ezein debeku-ziok eragiten Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnetatik.

c) Agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzeko:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko. Hala bada, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu ditzala adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizios egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa



zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina).  BAI  EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.

g) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Datu Fiskalen Orriaren azken aitortpena. Baldin eskatzailea PFEZaren aitortpena egitera derrigorturik ez badago, Foru Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, zeinetan adierazten baita ezen eskatzailea edo familia-unitatea ez daudela aitortpen hori egitera derrigortuta. Horrez gain, azken ekitaldiko datu fiskalen orria aurkeztu beharko du, Ogasunak emana. Horrelakoetan, kontuan hartuko dira familia-unitateko kideen diru-sarrera gordinak eta eguneratuak, baldin horien agiriak aurkeztu badira.

h) Datu Fiskalen dokumentuan ageri diren banku-kontuetako saldoen egiaztagiria, eskabidea aurkezten den eguneko, bai eta azken Errenta Aitortpena egin ondoren sortu diren banku-kontuetako saldoena ere.

i) Hala badagokio, enpresaren edo derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo irakaskuntza arautuko zentroaren egiaztagiria: langile edo irakasle interesdunaren egoeraren berri eman behar du, eta adierazi interesdunak ez duela garraio egokiturik eskuragarri.

j) Desgaitasun-maila aitortzeko agiria, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emana, edo beste autonomia-erkidego bateko organo eskudunak emandako antzeko egiaztagiria: garraio kolektibo publikoa erabiltzeko zailtasunak zehaztu behar ditu.

k) Egoitza edo eguneko zentroaren ziurtagiria: interesdunak hileru ordaindutakoa adierazi behar du, honela banakatuta: egoitzako edo eguneko zentroko plazaren hileko kostua, Zerbitzuari Lotutako Prestazioagatik jasotako zenbatekoa eta egoiliarren eginiko ordainketa garbia.

l) Hala badagokio, D.1 apartatuan adierazitako salbuespenezko egoerak justifikatzeko agiriak.

Beste edozein agiri osagarri eskatzen ahalko da dirulaguntza honen onuradun izateko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.

Aurrekoa gorabehera, deialdi honen G.2 apartatuan ezarritakoaren arabera (berritzeak) baliozkotzat jotzen diren eskaeretan, honako agiri hauek bakarrik aurkeztu beharko dira:

Dagokion erakundeari galdetuta egiaztatzen ahalko dira deialdi honetan ezarritakoaren arabera eska daitezkeen betekizunak edota datuak.

Udalak ofizioz egiaztatuko ditu:

- Eskatzailearen erroldatzea.

- Egunean izatea Iruñeko Udalarekiko ordainketa-betebeharrak.



- Eskatzaileak edukitzea ala ez edukitzea desgaitasuna eta mugikortasun murriztua dutenendako ibilgailuak aparkatzeko txartel berezia.

Eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du Iruñeko Udalari baimena ematea egoki jotzen diren jarduketak egin ditzan, egiaztatzeko hala eskatzaileek emandako informazioa nola eskatutako betekizunak betetzen dituztela eta laguntza jasotzearen ondorioz onuradunak dituen betebeharrak betetzen direla.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

#### **H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENEA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:**

**1. Prozeduraren instrukzioa:** Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Deialdiaren D.1) apartatuan jasotako egoera bereziak, edo ager daitezkeen salbuespenezko beste egoera batzuk, Gizarte Ekintzako Alorreko lantalde tekniko batek aztertuko ditu banan-banan. Aldez aurretik salbuespena justifikatzeko gizarte-txostena aurkeztu beharko da, bakoitzari dagokion auzo-unitateko edo osasun-zentroko erreferentziatzeko gizarte-langileak egindakoa.

Hauek osatuko dute aipatutako lantalde teknikoak:

- Gizarte Ekintzako Alorreko Autonomiari buruzko Programaren arduraduna.
- Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat.

Lantalde horrek proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko.

**2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:** Lau hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi beharko da gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta hauek zehaztuko dira ebazpenean berariaz: nork edo zer entitatek jasoko dituen edo dituzten dirulaguntzak, laguntzen zenbatekoak, eta, eskaerak ezetsiz gero, nor edo zer entitate diren eskatzaileak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta hauek zehaztuko dira ebazpenean berariaz: nork edo zer entitatek jasoko dituen edo dituzten dirulaguntzak, laguntzen zenbatekoak, eta, eskaerak ezetsiz gero, nor edo zer entitate diren eskatzaileak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

#### **3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:**

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna:  BAI  EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna:  BAI  EZ



-  Epea zenbatzeko beste sistema bat:  
Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

**I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:**

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea:  BAI  EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpeni buruz.

**J. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:**

**1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:**

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezberrik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- Taxi-zerbitzu publikoaren ibilaldia, Iruñerriko Zerbitzu Mankomunitateak haren araudian 2026rako ezarritako tarifekin bat.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak:  BAI  EZ

Honako gastu hauek ez dira, inola ere ez, gastu diruz lagungarritzat hartuko:

**2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: *2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.***

**K. AZPIKONTRATAZIOA:**

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI  EZ

Ehunekoa:

**L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:**

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI  EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa:

**M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:**

Udalaren dirulaguntza jasotzea  BATERAGARRIA  BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.



Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo erdietsiz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

#### **N. ORDAINKETA:**

**1. Ordaintzeko sistema:** Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Dirulaguntza honen ordainketa aurrez kargatutako txartel elektronikoen baten bidez egiten da.

Iruñeko Udalak entitate kolaboratzaile bat hautatu du txartel elektronikoa kudeatzeko beharrezko lanak egiteko eta onuradunei dirulaguntza ordaintzeko, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezartzen dituen eskakizunekin bat. Entitate kolaboratzaile adjudikaziodun hau arduratuko da txartel elektronikoen bidez zenbatekoak ordaintzeaz eta onuradun bakoitzaren egoera erregularizatzeaz: taxi-bonu txarteletan kargatutako ditu, hilerio, hilabete bati dagozkion zenbatekoak, eta deialdi honen babespean emanen diren dirulaguntzetara egokitutako ordainketa-bitarteko bat sartuko du kudeaketa-sisteman; bitarteko horrek arautuko ditu hala taxi-bonuen erabilera nola banaketa, eta deialdi honen arabera egindako benetako gastuaren ordainketa.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

#### **2. Bermeak eratzea:**

BAI  EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:



**Ñ. JUSTIFIKAZIOA:**

**1. Justifikatzeko modalitatea:** Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukiak:  BAI  EZ

Justifikazio-kontu erraztua:

Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orriak aurkeztea:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat: Entitate kolaboratzaileak aurkeztuko du justifikazioa, eta onuradunek horretarako eskatzen zaizkien agiriak aurkeztuko dizkiote, arau hauekin bat:

- Hiruhileko natural bakoitza amaitu eta hamabost egun baliodunetara, aurreko hiruhilekoaren azken egunera bitarte izandako diru-sarrera eta gastuak justifikatu beharko dira.

- 2027ko urtarrilaren 31n, egindako jardueraren justifikazio-memoria aurkeztu beharko da, bai eta entitate laguntzailea 2026an prestazioa ematen hasi zenetik 2026ko abenduaren 31ra bitarte egindako jardueraren gastuen eta diru-sarreraren justifikazioa ere, superabita barne, halakorik bada.

Bi une horietan, jarraian zehazten diren agiriek osatuko dute justifikazioa: a) Diruz lagundutako jardueraren ebaluazio-memoria.

b) Deklaratzaileak izenpetutako zerrenda izenduna, banakako txarteletara egindako transferentziena.

c) Deklaratzaileak izenpetutako zerrenda izenduna, horretarako berariaz gaitutako kontu korrante nagusira itzulitako banakako txartelen zenbatekoena.

d) Taxi-zerbitzuaren karguen zerrenda izenpetua.

e) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren balantze izenpetua, horretarako berariaz gaitutako kontu korrontearen saldoa.

**2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:**

**1.- Hiruhileko natural bakoitza amaitu eta hamabost egun baliodunetara: aurreko hiruhilekoaren azken egunera bitarte izandako diru-sarrerak eta gastuak.**

**2.- 2027ko urtarrilaren 31rako: Egindako jardueraren justifikazio-memoria aurkeztu beharko da, bai eta entitate laguntzailea prestazioa ematen hasi zenetik 2026ko abenduaren 31ra bitarte egindako jardueraren gastuen eta diru-sarreraren justifikazioa ere, superabita barne, halakorik bada.**



**O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOTIAK:**

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai eta berandutze-interesak galdatzea ere – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak:  BAI  EZ

**- Taxi-bonu txartela behar ez den bezala edo modu iruzurtian erabiltzeak txartela erabiltzeko eskubidea galtzea ekartzen ahalko du, aldez aurretik dagokion administrazio prozeduraren instrukzioa eginda.**

**P. ERREKURTSOAK:**

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

**Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:**

**1. Ezinbestekoa da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntzak emateko, eta, horrenbestez, ezin izanen da ezein laguntzarik ematea onetsi 2026. urteko aurrekontua (luzatua zein behin betikoa izan) indarrean sartu arte deialdi honi erantzuteko kreditu egoki eta nahikoarekin.**

**2. Entitate laguntzaile bat aukeratu da programa honen babespean emandako dirulaguntzen ordainketa egiteko, eta horrek, organo emailearen izenean eta haren kontura, beharrezko diren lanak eginen ditu dirulaguntzak onuradunei emateko eta banatzeko. Entitate laguntzailearen aukeraketa Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 13.5 artikuluan ezarritakoarekin bat egin da. Deialdi honetara bideraturiko kreditua aukeratutako entitate laguntzaileak kudeatu eta banatuko du. Onuradunen artean banatzeko jasotako funtsak ez dira ezein kasutan entitate laguntzailearen ondarearen partetzat hartuko.**

**Entitate laguntzaileak Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. eta 12. artikuluetan jasotako betebeharrak onartu beharko ditu.**

**Entitate laguntzaileak funtsak itzuli beharko ditu baldin eta dirulaguntzak emateko betebeharrak betetzen ez baditu, eta, edozein kasutan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legearen 37. artikuluan eta Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan jasotako kasuetan.**

**Iruñeko Udalak dirulaguntzen deialdi honetara zuzendutako funtsen % 80 emanen dio urteko lehenengo bihilekoan dirulaguntzak kudeatzeko ardura duen entitate laguntzaileari. Behin deialdiaren lehenengo hiruhilekoaren justifikazioa baloratuta, gainerako % 20ari dagokion zenbatekoa transferituko zaio entitate laguntzaileari, ezertan galarazi gabe oinarri hauen Ñ apartatuan ezarritako justifikazioak.**

**3. Oinarri hauek erreferentzia egiten dioten Errege Dekretua, 1971/1999 zenbakiduna, ez**



**dago indarrean dagoeneko, baina eskabideak kudeatzeko, dekretu hori aplikatuko zaie 888/2022 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik igorritako ziurtagiriei.**

**R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:**

**I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

**II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU-ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

**III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

**ERANSKIN OSAGARRIAK.**